

Hementxe bidaltzen dizkizuegu zenbait ohar ezberdin:

- **2017-18 Ikasturterako BEKAK:** Zabalik dago Beka eskaera egiteko epea. Aurten ere sistema informatikoa erabiltzea derrigorrezkoa da, eta beraz den-dena on line egin beharko dugu. Eskaerak ikastolan aurkezteko epea: **Irailaren 18tik urriaren 18 bitartean [informazio gehiago hemen](#)**. Eskaerak egiteko 2 bide ezberdin jorratu behar ditugu:
 - **Iaz BEKA eskatu zenutenok:** Beka onartua edo ukatua izan arren, zuen datuak iaz informatizatu genituen. Beka eskaera tramitatze bideak:
 1. **Zuek dena On Line:** Hezkuntzako beka aplikatiboan sartu, zuen datuak ongi daudela ziurtatu, aldaketarik balego bertan egin eta sinadura elektronikoarekin beka ontzat eman eta bukatu. Ez duzue inprimakia bulegora ekarri behar telematikoki ondo bukatu baduzue.
 2. **Ikastolako bulegoan:** dagoeneko bulegoan zuen inprimakiak paperean dauzkagu. Beraz, bulegoan zuen inprimakia jaso, datuak ondo daudela ziurtatu, aldaketarik balego bertan egin eta berriro ere bulegora ekarri bertan tramitea telematikoki bukatzeko, inprimitu eta sinatuta uzteko.
 3. **Zerbait aldatuko** baduzue, dokumentu ofizialetan oinarrituta egon beharko da, eta horren kopia aurkeztu beharko dira (familia liburua, familiaren errolda agiria, familia ugariko liburua, elbarritasun agiria, banaketa erabakia,...). Aldaketarik ez badago EZ duzue dokumentaziorik ekarri behar.
 - **Beka BERRIA eskatu behar duzenok:** Oraingoan ere, EZ DUTE zuen beka eskaera egiteko paperik bidali. Den-dena ON line egin beharko dugu, beraz:
 1. Tutore legal batek Hezkuntzako webean erabiltzaile moduan alta eman eta eskaera egin beharko duzue [eskaera on line](#).
 2. Etxean eskaera inprimitu, paperean akatsak zuzendu, sinatu eta bulegoan aurkeztu.
 3. **Datu guztiak** dokumentu ofizialetan oinarrituta egon beharko dira, eta horren kopia aurkeztu beharko dira (familia liburua, familiaren errolda agiria, familia ugariko liburua, tutore edo ikaslearen NAN kopia, elbarritasun agiria, banaketa erabakia,...).

Ez utzi mesedez azken momenturako (azken eguna URRIAK 18).

- **Ikastolako erreziboak:** Hilero, lehen astean, erreziboa banketxera bidali baino lehen, kontu korronteen titular guztiei ikasleen erreziboen INFORMAZIOA bidaliko dizuegu, kobratuko zaizkizuen kontzeptuak zeintzuk diren jakiteko.

- **Parkina:** Goizeko 8:00etan ikastolara autoz etortzen garenok sortzen ditugun auto ilarak ekiditeko MESEDEZ ikasleak deskargatzeko erabili beheko parkina eta errotonda. Gora igotzeagatik aldapan eta errepidean sortzen diren ilaretan AUTOBUSA minutuak gelditu egoteagatik ikasleak berandu ailegatzen dira. Eguerdiko 15:00etan goiko errotondan autobusak, ikasleak eta autoak gelditzeagatik ere, egoera oso arriskutsuak sortzen dira. Mesedez, ikasleak beheko parkinean ITXARON, ez blokeatu goiko errotonda autoak bertan aparkatzen. Guztiok eskertuko dugu. [parkinerako irizpideak](#)
- **Ikasleen istripuak.** Ikasle batek ikastolako orduetan istripurik izanez gero, IKASLARIN aseguruaren medikua eta Quirón ospitala erabili behar dugu. Mesedez, **EZ eraman Osakidetzako larrialdietako zerbitzuetara** guk bideratua ez bada eta ezarritako protokoloa jarraitu. [protokoloa hemen](#).

Gogoratu ikastolari buruzko informazio ere www.anderdeunaikastola.eus Web orrialdean eguneratua daukazuela (Jantokiko menuak, Autobus zerbitzua, Eskola egutegia, ..).

Eskerrik asko.

Karmen Galdeano. Idazkaritza.

Os mandamos diferente información

- **Becas del curso 2017-18:** Ya se ha abierto el plazo para solicitar las Becas. Este año también obligatoriamente tenemos que solicitarlas vía sistema informático. El plazo para presentar la solicitud es del **18 de septiembre al 18 de octubre información general**. Según la beca, utilizaremos 2 procedimientos:
 - **Si se SOLICITÓ la beca el año pasado (concedida o denegada):** Vuestro datos ya están informatizados, por lo que hay que comprobar que todo está bien. Para ello:
 1. **Cada solicitante ON-LINE:** Desde el aplicativo informático de Becas, comprobar que los datos están bien, si hay que hacer algún cambio hacerlo y acabarlo con firma electrónica. En este caso no habría que traer el impreso firmado a la oficina. (si se ha acabado BIEN el procedimiento telemáticamente).

2. **En el bulego de la ikastola:** Ya tenemos impresas las solicitudes del curso pasado. Tendréis que venir y confirmar o corregir los datos para poder acabarla telemáticamente, y poder dejarla firmada.
 3. **Cualquier cambio NUEVO** debe estar basado en documentos oficiales que deben presentarse junto a la solicitud (libro de familia, certificado de empadronamiento, libro de familia numerosa, certificado de incapacidad, convenios de separación,...). Si no hay cambios no hay que traer documentación alguna.
- **Si se solicita una NUEVA beca:** Este año tampoco han mandado los impresos de las solicitudes en papel ya que la solicitud se debe hacer exclusivamente On LINE [solicitud on line](#), por eso:
 1. Un tutor responsable deberá darse de alta como usuario en la aplicación de Educación-Becas, para poder hacer la solicitud ON LINE desde casa.
 2. Deberá imprimirla, confirmar o corregir en el papel los errores y presentarlo firmada en secretaría.
 3. **TODOS los datos** deben estar basados en documentos oficiales que deben presentarse junto a la solicitud (libro de familia, certificado de empadronamiento, libro de familia numerosa, copias de DNI de alumnos/tutores, certificado de incapacidad, convenios de separación).

NO dejar la tramitación para el último momento (último día 18 OCTUBRE).

- **Recibos de Ikastola:** Las primeras semanas de mes, y antes de enviar la orden de cobro al banco, os INFORMAREMOS por correo electrónico al titular de la cuenta bancaria de los conceptos de los recibos que se cobrarán ese mes.
- **Parking:** Para intentar evitar los atascos que generamos los coches que venimos a las 8:00 de la mañana, MESEDEZ descargar a los alumnos en las escaleras del parking de abajo. No podemos permitir que el autobús llegue unos minutos tarde porque se queda bloqueado en la carretera. A las 15:00 también se producen momentos de riesgo en la rotonda de arriba donde coincide la salida de alumnos, maniobras de autobuses y coches en espera en la misma rotonda. Mesedez, esperar a los alumnos aparcados tranquilamente en el parking de abajo [recomendaciones parking](#). Todos lo agradeceremos.
- **Accidentes de alumnos:** Cuando un alumno sufre un accidente en horario escolar tenemos que utilizar los médicos y hospital (Quirón) del seguro escolar IKASLARIN. Mesedez, **NO utilizar los servicios de urgencias de**

Osakidetza si no os lo hemos dicho expresamente y seguir el protocolo establecido [protocolo de accidentes](#).

Toda esta información la podéis encontrar en la página web de la ikastola www.anderdeunaikastola.eus (menús del comedor, servicio de autobuses, calendario escolar, información extraescolares,..)

Eskerrik asko.

Karmen Galdeano. Idazkaritza.